2. mailako *Hirigintza I: inguru fisikoa* irakasgaia. 2012-2013 ikasturtea. 3. ariketa (hiriaren eskala)

Hiri-azterketa hirukoitza

Aurtengo tailer bateratuko praktika Gasteizen denez, *Hirigintza I: inguru fisikoa* irakasgaiko ikasleek, taldeka, Gasteizko hurrengo hiri-azterketa hirukoitza egin beharko dute:

1. **Lurzoru-klasifikazioaren azterketa**: 1/30.000 eskalako din A-3 plano batean hiri-lurzoruaren muga zehaztuko da (gorriz, barnekoa leunki betez), bai eta etorkizun gertuan urbanizatzeko aproposa den lurzoru-urbanizagarrien muga(k) ere (laranjaz, barnekoa leunki betez).
2. **Sistema orokorren azterketa**: 1/30.000 eskalako din A-3 plano batean hautematen diren lurralde- eta hiri-mailako sistema orokor nagusiak zehaztuko dira, koloreekin bereiztuz (udalerriz gaindiko errepideak; trenbideak; bospasei kale, plaza eta parke nagusiak; bospasei ekipamendu nagusiak…).
3. **Hiri-hazkunde moten azterketa**: 1/20.000 eskalako din A-3 plano batean XX. mende bitarteko hiri-hazkunde mota nagusiak zehaztuko dira:
    1. Alde zaharra (jatorrizko hiribildua eta bi burguak bereiztuz) [gris koloreekin].
    2. XIX. mendeko zabalgune burgesa (etxe-uharte itxietan oinarritutakoa) eta tren-geltokia [marroiz].
    3. XX. mendeko 1. erdialdeko langile-auzoak (lorategi-hiria bereiztuz) [gorri koloreekin].
    4. 1960-1980ko hamarkadetako garapenkeriaren garaiko etxebizitza-poligonoak (dorreetan eta bloke irekietan oinarritutakoak) [laranjaz].
    5. XX. mende amaierako zabalguneak (etxe-uharte itxietan oinarritutakoak) [horiz].

    Halaber, hiri-hazkunde mota bakoitzeko adibide bat handiago azalduko da (1:5.000 eskala inguruan) beste din A-3 batean, Euskal Herriko beste adibide antzerako batekin batera. Eta erakusteko hiri-hazkunde moten eta arkitekturaren arteko erlazioa, A-3 horietako bakoitzean hazkunde mota bakoitzeko eraikin-tipologia azalduko da eredu baten bidez: oinplanoa(k), sekzioa(k) eta altxaera(k).

Ariketan, beraz, 8 plano din A-3 eskatzen dira. Ez ahaztu plano bakoitzaren izenburua, eskala eta legenda adierazten. Ematea CDan (PDF edo irudi-formatoan) eta paperean egingo da, azaroaren 26ko (TA-1 eta TA-2 taldeak) eta 28ko (TA-3 taldea) eskola praktikoen hasieran (18:00an).

Oharra: oinarri bezala plano hau erabili daiteke: http://ttiki.com/44047

Donostian, 2012ko azaroaren 5ean

Irakasleak: Josemari Alkorta eta Unai Fdz. de Betoño